

EUROPAKO GIZARTEEN INDUSTRIALIZAZIOA

Industria Iraultza:

XVIII. mendearen erdialdean lehen aldiz Britainia Handian eman ziren aldaketa ekonomiko eta teknologikoen emaitza da. Honen eraginez, ekonomiaren eta gizartearen aldaketa sakona gertatu zen.

Iraultza demografikoa:

XVIII. mendearen erdialdetik aurrera Europako populazioak izandako hazkunde nabarmena da, ekoizpenaren gorakada eta garbitasun baldintzen eta medikuntzan eman ziren aurrerakuntzen ondorioz.

Norfolk sistema:

Nekazal iraultzan garatutako laborantza teknika berria, lugorria ordezkatu zuena; lur zatirik geldialdian ez uztea etaazienda elikatzeke belarki-laboreak ekoiztean datza.

Fabrika sistema:

Industria Iraultzan, mekanizazioak eta energi iturri berrien erabilerak eragindako lan egiteko sistema berria da. Sistema horretan, langile eta makinak eraikin industrial erraldoietan biltzen dira, fabriketan, eta lan prozesua banatu egiten da, alegia, langile bakoitzak produkzio kateko zati txiki baten ardura dauka.

Kapitalismoa:

- ✓ Industria Iraultzak sorrarazitako eredu ekonomikoa da, honako printzipioak dituena: norberaren interesa eta ahal den etekin gehiena bilatzea, eskaria eta eskaintzaren legea, eta Esatatuak ekonomian esku ez hartzea.
- ✓ Produkzio-bide eta banakuntza-bideen jabe pribatua (eta ondorioz irabazi pribatua) oinarritzen den sistema ekonomiko eta soziala. Bere ezaugarri nagusiak ekimen indibiduala, helburua mozkin izatea eta enpresen arteko konkurrentzia dira. Produkzio-bideen jabe ez diren eta beren lan-indarra merkatuan saltzen duten langileen bidez garatzen den sistema da.

Truke askea:

Produktuen joan-etorri askea mugatzeko eragozpenak ezabatzen dituen ekonomia-politika.

Protektionismoa:

- ✓ Produktu nazionalekin lehiatu ahal diren atzerriko produktuak sartzea eragozten duen ekonomia-politika.
- ✓ Industria nazionala babesteko inportazioei eragozpenak (zergak, arantzelak) jartzen dizkien ekonomia-politika.

Sozietate Anonimoa:

Industria Iraultzan, enpresek zuten diru ekarpen handien beharraren ondorioz sortutako enpresa mota. Erantzukizun mugatuko enpresa, kapital sozial guztia akziotan banatuta duena. Akzio horiek edonork erosi eta sal ditzake horretarako propio sorturiko erakundean: balore-burtsan.

Taylorismoa:

Produktibitatea sustatzearren F.W. Taylor-ek sortutako lan-antolaketa zientifikoa. Helburuak emankortasuna handitzea, produkzio denbora murriztea eta fabrikazio kostuak jaiste ziren. Horretarako, produkzioaren antolaketa serieko ekoizpenera bideratu zen, lana katean zeregin oso espezifikoetan, zehaztasun handiko makinak erabiliz, eta eskulanari ahalik eta etekin gehien atereaz.

Kartela:

Lehiaketa murrizteko, independente diren enpresa batzuek elkartzeko sinatzen duten akordioa. Helburua prezioak finkatzea eta eraginpeko eremuak ezartzea da. Enpresa bakoitzak bere finantza-independentsia mantentzen du.

Trusta:

Lehiaketa murrizteko, independente diren enpresa batzuek elkartzeko sinatzen duten akordioa. Enpresa batzuk enpresa bakar bat osatzeko elkartzean sortutako elkarte finantzarioa da.

Holdinga:

Enpresa eta banku talde jakin baten akzioen gehiengoa daukan finantza-taldea.

Monopolioa:

Produktu bat merkaturatzeko enpresa batek duen eskubide eskusiboa.

Klaseen gizartea:

Industria Iraultzaren ondorioz sortu zen gizartea. Gizarte industrial berrian ezberdintasun sozialak ez ziren jaiotzaren arabera ezartzen, Antzinako Erregimenean bezala, aberastasunaren arabera baizik. Bi talde handitan banaturik zegoen: burgesia eta proletalgora.

Burgesia:

Industria Iraultzan sortutako klase sozial berria. Industrien eta negozioen jabe den klase soziala. Hala ere, burgesiaren barruan ezberdintasunak daude: batetik, burgesia handia dago, produkzio-bideen jabe den taldea, gizarte kapitalistan buruzagi dena; bestetik, burgesia txikia dago, produkzio-bideen jabe ez direnek, baina nekazari edo industri proletalgoko kide ere ez direnek osatutako multzo heterogeneoa (artisau, funtzionario, teknikari...).

Proletalgoa:

Industria Iraultzan sortutako klase sozial berria. Produkzio-bideen jabe ez diren eta beren eskulana soldata baten truke saltzen duten pertsonen osatutako taldea. Gizarte berriko talderik ugariena eta kaltetuena, bizitzeko eta lanerako baldintzak oso gogorrak dituena.

Klase-kontzientzia:

Klase sozial bateko partaideak elkartzen dituen sentimendua; klaseak bere buruaren egoeraz duen kontzientzia datza.

Ludismoa:

XIX. mendeko hasierako hamarkadetan Europan zabaldu zen langile mugimendua. Makinismoa soldata baxuen eta langabeziaren igoeraren eragileztat jo eta, protesta moduan, makinak txikitu eta hainbat lantegiri su eman zioten.

Sorospenerako Elkarte Mutuak:

Kuota baten bidez bazkideen beharrak (langabezia, gaixotasuna, heriotza...) sorosteaz arduratzen den erakundea. Lehenengoak Britainia Handian eratu ziren XVIII. mendearen amaieran.

Sindikatuak:

Interes komunen defentsarako eratzen den langile-elkartea, langileen interes sozial, ekonomiko eta profesionalak defendatzeko eta sustatzeko helburuarekin. Lehenengoak Britainia Handian sortu ziren XIX. mendean.